

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakume askoren eta desberdinen topaketarako, prestakuntzarako, go-goetarako eta ekintzarako espazioa da Emakumeen Etxea. Zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskeitzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizimodua hobetzeko eta berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan eratu da Etxeko jarduerak kudeatzeko. Denborarekin, Elkarteko bazkide aktiboek batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira beren interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu. Guztiak irekiak dira bazkideek parte hartu ahal izateko.

Ikastaroetan Izen-ematea:

Irailaren 3tik 28ra bitartean egingo da.

- Ikastaro eta zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara edo tailerretara abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu edo ikastaro berrietan parte hartu urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak ezer esan gabe, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.



Lan hildo orokorrak

- indarkeria
- autonomia
- artibismoa
- autonomia eta makinak
- kulturantzatasuna
- zaintzak
- genero teoria
- sexualitatea

AHALDUNTZE TALDEAK

- Irakurle eskola feminista
- Aktibismoa - artearen bidez
- Ventaneras, la precuela
- Ventaneras
- Batukada feminista
- Klown
- Taldeko kantua
- Xake
- Zaurgarritasunak Euskal Literaturan
- Autodefentsa feminista
- Zapalduon antzerki talde feminista
- Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak
- Desgaitasun ahalduentze taldea
- Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea

TAILERRAK

- Artea eta emakumeak
- Brikolajera
- Sexo con sentido
- Soinu ekipoak erabiltzeko oinarriko tailerra
- Informatika tailerra
- Empalabramiento
- Ekintzailtzarako tailerra
- Zaharralduntze feminista
- Autodefentsa digitala
- Generoa desmuntatzen: indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea
- Zertan datza berdintasunaren eta feminismoaren kontu hori?
- Laneko, familiako eta norberaren bizitza bateratzeko eta erantzukidetasunerako giltzak

ZERBITZUAK

- Arreta eta bideraketa
- Etxeko langileentzako aholkularitza
- Aholkularitza laguntza taldea
- Gizarte aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea
- Lege aholkularitza
- Norbanakoaren jabeakuntzarako gunea
- Biluzik mundura
- "Igualate" ikasketa homologatzeko kanpaina
- Ordenagailu eta internet zerbitzua



AHALDUNTZE TALDEAK

Irakurle eskola feminista

Formatzailea: **Iratxe Retolaza**

Irakurle talde honetan pentsamendu feministan arakatzea izango dugu helburu, eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai. Horretarako, hainbat irakurgai (testu solteak, artikulua edota liburuak) landu, eta horien inguruko gogoeta egingo dugu, betiere diskurtso feministek zabaldu dituzten bidezidorretan ibiltzeko asmoz, nork bere esperientziatik hitz eginez, nork bere gorputzetik.

Eguna

Asteartea

Ordua

19:00 - 20:30

Hasiera

Urriak 16

Hizkuntza

Euskara

Antolatzailea

Emakumeen Etxea Elkarte

Aktibismoa - Artearen bidez

Formatzailea: **Ustaritz Betelu**

Hau ez da arte tailer ohiko bat. Urritik ekainera Aktibismo ikastaro bat burutuko dugu Etxean, artearen bidez kalera ateratzeko, ekintzak egiteko. Segurtasunetik, konfidatuzatik eta ikaskuntzatik, gure hirian arrasto feminista ikustarazteko. Lan hau garatu nahi baduzu, izena eman, zure zain gaude.

Eguna

Astelehena

Ordua

18:30 - 20:00

Hasiera

Urriak 8

Hizkuntza

Elebiduna

Antolatzailea

Emakumeen Etxea Elkarte

Ventaneras - La precuela

Formatzailea: **Mertxe Tranche**

La Rive Gauche

XIX. mendearen bukaeraren eta II. Mundu Gerraren artean, emakume-talde bat, munduko toki guztietatik etorria, Parisen bildu zen, beren talentua garatzeko behar zuten askatasun-giroaren bila. Han, denen artean, munduko literatura guztiz berritzeko ahalegina egin zuten, eta lortu zuten garai hori bikain eta berritzaileenetako bat izatea. Poesia eta prosa idatzi zituzten, bai eta, patriarkatuaren ikuspuntutik, inolako zentzurik ez zuten testuak ere; artikuluak eta aldizkariak argitaratu zituzten, liburu-dendak eta argitaletxeak sortu zituzten, surrealismoaren autore nagusiei lagundu zieten, sexualitateaz eta generoaz gogoeta egin zuten... Soilik II. Mundu Gerrak lortu zuen, bere autoritarismoarekin eta bere suntsipen-lorrazarekin, emakume horiek atzera egitea, beren etxe eta herrietara bueltatzea, Paris uztea. Baina ondare bat utzi zuten, eta orain aukera dugu haren arrastoari jarraitzeko eta ezagutzeko.

Eguna

Asteartea, hilabetearen behin

Ordua

19:00 - 21:00

Hasiera

Urriak 9

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzailerak

Berdintasun Sailsa

Ventaneras

Formatzailea: **Mertxe Tranche**

"**Berri-berriak**" izeneko lantegian aztertuko ditugun liburuak XXI. mendean idatzitakoak izango dira, edozein kultura eta herrialdetakoak, betiere gaztelaniaz argitaratuak. Oraingoz bestelako liburuak izango dira, beste ikuspegi baten arabera hautatuak; izan ere, orain arte, lantegi guztiak tematikoak edo geografikoak izan dira. Orain, ikuspegia kronologikoa izango da, pentsatuz emakume idazle berriak eta haien kezkek ezagutzeko lagungarri izango zaigula emakumeok gaur egun ditugun eztabaiden inguruan hobeto hausnartzeko; horixe baita, azken batean, parte-hartzaileek lantegitik gehien baloratzen duten alderdia.

Eguna

Osteguna, hamabostero

Ordua

19:00 - 21:00

Hasiera

Urriak 11

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzailerak

Berdintasun Sailsa



Batukada Feminista

Formatzaileak: **Arantxa Vicedo eta Ainara Sarasketa**

Etzeko Batukada edo Sorginbanda emakumeok elkartzeko, sortzeko eta ekintza askoren bidez kaleak hartzeko gunee feministak bat da. Musikaren bitartez, Batukada honek sorroritate eta ikaskuntza leku bat sortzen urteak daramatza. Emakumeok arlo publikoa jarrera aldarrikatzaile batetik hartzeko, emakumeak jabetuz.

Eguna
Asteazkena
Ordua
18:30 - 20:30
Hasiera
Urriak 3
Hizkuntza
Elebiduna
Antolatzailea
Emakumeen Etxea Elkartea

Klown

Formatzailea: **Bea Egizabal**

Gune honek bizitzaren gorabeherakbarrearen bidez exorzizatu nahi ditu. Bertan barreak potentzia sendatzailea daukela ikusiko dugu eta zaintza eta konfidantzazko leku batean geure buruaz barre egitea, munduaren aurrean jarrera boteretsuagoa lortzera eraman gaitzakeela. Bizitza ulertzeko barrean beste era bat aurkitu nahi baduzu, rolak eta estereotipoak umore feministak eta urratzailearen bidez kuestionatzeko, hau da zure gunea.

Eguna
Astelehena
Ordua
18:30 - 20:00
Hasiera
Irailak 17
Hizkuntza
Elebiduna
Antolatzailea
Emakumeen Etxea Elkartea

Taldeko kantua

Formatzailea: **Bettina Aragon**

Emakumeen Etxeko abesbatza kantuaren bidez indartzeko gune bat da, zeinak ekintza feministak desberdinak egiteko emakume sare bat sortu duen eta beste behin ere, ateak irekitzen dituen talde honetan parte hartu nahi dutenentzako.

Eguna
Ostirala
Ordua
19:30 - 20:30
Hasiera
Irailak 21
Hizkuntza
Gaztelania
Antolatzailea
Emakumeen Etxea Elkartea

Xake

Formatzaileak: **Julia Gallego, Eli Agirre eta Leire Cruz**

Estrategiaz xakera jokatzen ikasi nahi duzu? Txapelketetan lehiatu edota dibertitzeko. Etxean dagoeneko ikasten eta praktikatzen ari diren taldeekin jokatu nahi duzu? Xakea gusatzaren bazez edo kirol honetan jokatzea beti erakargarria iruditu bazez, eman izena Emakumeen Etxean.

Federatuak	1.Maila
Astelehena	Asteartea
19:00 - 21:00	19:30 - 20:30
Hastapen maila	2.Maila
Asteartea	Ostirala
18:30 - 19:30	18:30 - 19:30



Zaugarritasunak Euskal Literaturan

Formatzailea: **Iratxe Retolaza**

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, zaugarritasunaren inguruko hausnarketa abiatuko dugu; eta bestetik, begirada eta irakurketa feminista. Bidegurutze horretan, zaugarritasunaren inguruko gogoeta-bideak zabaltzea izango dugu helburu nagusi, betiere ikuspegi feminista abiapuntutzat hartuz. Horretarako, hainbat gai jorratzen dituzten literatur testuak irakurriko ditugu: presio sozialak (adibidez, alardea), aniztasun funtzionala, gaixoaldiak (adibidez, HIESA), hilkortasuna, eta abar. Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: zein zaugarritasun irudikatu dira euskal literatura garaikidean? Zaugarritasun horiek zer genero-ikuspegi irudikatu dituzte? Zaugarritasuna irudikatzean, nolako proposamen feministak egin dira? Irakurleok nola eraikitzen dugu geure zaugarritasunaren eta pertsonaia zaurituaren arteko harremana?

Horretarako, ikastaroaren metodologia praktikoa eta parte-hartzailea izango da. Literatura testuen irakurketa eginez, parte-hartzea eta eztabaida bultzatuko dira.

Eguna
**Osteguna, hilabetean
behein**
Ordua
19:00 -21:00
Hasiera
Urriak 18
Hizkuntza
Euskara
Antolatzailea
Berdintasun Saila

Autodefentsa feminista

Formatzailea: **Naroa Argoitia**

Azken urteetan, Autodefentsa Feministako aspektu batzuetan sakontzen gabiltzan taldea gara. Geure buruak hobeto ezagutzeko, elkar babesteko, autoestimua lantzeko, elkar elikatzeko, zaintzeko eta ondo pasatzeko biltzen garelarik elkarrekin. Patriarkatuak eragindako zauriak identifikatu, zaindu eta lantzeko gune askea sortzen gabilta eta Dantza Primalaren bidez egiten dugu hau, gure barne munduetan murgilduz eta elkarrekin partekatuz. Ongietorriak zarete gurekin bide honetan jarraitu nahi duzuen guztiok!

Eguna
Ostirala
Ordua
18:00 - 20:00
Hasiera
Irailak 14
Hizkuntza
Euskara
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea
Elkartea**



Zapalduon antzerki talde feminista

Formatzailea: **Aitziber Eguskiza**

Zapalduon antzerkia egiteko elkartu garen emakume anitzak gara, kolore eta zapore askotarikoak. Talde hone-tan, gune honetan, geure burua ikusteko hainbat ispilu topatu ditugu. Gu bezalakoak diren emakume anitzekin egin dugu topo. Gure artean konektatzeko presentziaren bitartez, gorputzean oinarritutako lengoia berri bat ikasi dugu, baita hitz egin ere. Batasunean datza gure boterea. Gure territorioak ibili gara berreskuratzen: gure gorputzak. Besteek gure orde z esan beharrean, geu hasi gara esaten, gorputzetik. Gorputzetik bizi garelako. Norbera onartuz, sentitze partekatu batetik taldean onartuz. Itsasora harri bat botatzen denean ehundaka uhin sortzen dira. Hau da gure nahia eta hementxe doa harria. Antzerkian eskarmentua duten emakume feministak gonbidatu nahi ditugu parte-hartzera.

Eguna

Asteazkena

Ordua

18:30 - 20:00

Hasiera

Urriak 17

Hizkuntza

Elebiduna

Antolatzailea

Emakumeen Etxea Elkarte

Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak

Dinamizatzailea: **Ana Murcia**

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte beren artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira: zer gertatzen zaien jakitea, pozarekin konektatzea, nork bere gorputza zaintzea, desirarekin duten harremana ezagutzea eta taldearen laguntza jasotzea, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko.

Eguna

Osteguna

Ordua

16:30 - 18:30

Hasiera

Irailak 6

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzailea

Berdintasun Saila



Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea

Dinamizatzailea: **Rosa Ugalde**

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko. Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.

Eguna
Ostirala
Ordua
11:30 - 13:30
Hasiera
Irailak 28
Hizkuntza
Elebiduna
Antolatzailea
Berdintasun Saila



Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea

Dinamizatzailea: **Beatriz Zalakain**

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakakoen eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna eta baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagupen ekintzetan parte hartzen dute.

Eguna
Asteartea
Ordua
16:00 - 18:00
Hasiera
Irailak 11
Hizkuntza
Gaztelania
Antolatzailea
Berdintasun Saila



 Autonomia
 Kulturantzatasuna



TAILERRAK

Artea eta emakumeak

Formatzailea: **Dora Salazar, Lola Roldan eta Vilma Coccoz**

Artea eta emakumeen inguruko hitzaldi sorta, emakumeak ikusarazteko eta boteretzeko, femenino sinbolikoa argitara ateratzeko, gizonen emakumeen gorputzen inguruko begirada kritikatzuz eta lehenagoko eta gaur egungo artisten obrak aldarrikatuz, Frida Kalho eta Dora Salazar bezala, zeintzuek artea egiteko beste begirada bat integratzen duten.

Eguna

Asteazkena

Ordua

19:00 - 20:30

Hasiera

Urriak 24

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzailea

Emakumeen Etxea

Elkartea

Brikolajera

Formatzailea: **Goizalde Larraza**

Genero kutsua dela eta, brikolajea irakatsi ez zizutela uste al duzu? Etxeko konponketa txikiak egiteko konfiantza edukitzea gustatuko litzaizuke, horrela zure autonomia handituz? Brikolaje mundua gustatzen bazaizu baina orain arte ikasteko segurtasunik izan ez baduzu, hau da zure gunea.

Eguna

Osteguna

Ordua

18:30 - 20:30

Hasiera

Urriak 4

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzailea

Emakumeen Etxea

Elkartea

Sexo con sentido

Formatzailea: **Irantzu Varela**

Desira eta plazeraren inguruko tailer honekin, askatasunerako gune bezala berdefinitu nahi dugu sexualitatea. Sexua maitasun erromantikoaz bereiztea da ideia, baita gorputza askatasunerako eta plazererako eremutzat hartzea ere, emakumeengan gauzatutako kontrolerik bereiztuz. Horretarako heteropatriarkatuaren mitoak apurtuko ditugu: heteronormatibitatea, binarismoa, monogamia, koitozentrismoa. Halaber, perbertsotzat edota bazterrekoztat hartutako praktikak ikustaraziko ditugu.

Eguna
Ostirala
Ordua
18:00 - 20:00
Hasiera
Irailak 28
Hizkuntza
Gaztelania
Antolatzailea
Emakumeen Etxea
Elkartea

Soinu ekipoak erabiltzeko oinarrizko tailerra

Formatzailea: **Arantxa Vicedo**

Tailer honek ekitaldien soinua jartzean dagoen genero desberdintasuna apurtu nahi du, bai hitzaldietan eta baita musika emanaldietan ere. Soinu teknikari bezala gero eta emakumezko gehiago egon arren, emanaldi desberdinetan, baita emanaldi feministetan ere, betebeharrak burutzen dutenen artean emakumeak gutxiago dira. Tailer honetan ekipo erraz bat muntatzen ikasiko duzu eta baita hitzaldiak, mahai inguruak, DJ saioak edota talde musikalak sonorizatzen ere.

Eguna
Asteartea
Ordua
18:30 - 20:30
Hasiera
Azaroak 13
Hizkuntza
Gaztelania
Antolatzailea
Emakumeen Etxea
Elkartea

Informatika tailerra

Formatzailea: **Elena Rincón**

Moldatzen zara ordenagailuarekin baina oinarrizko gauza batzuk ezin dituzu egin eta ikasi nahi duzu? Ikasitako oinarrizko ezagutzak, oraindik barneratu ezin izan dituzunak, finkatu nahi dituzu? Hau da zure tailerra. Ikasitakoa era trinko batean birpasatuko dugu, ordenagailuaren oinarrizko erabilera eduki dezazun.

Eguna
Asteartea eta osteguna
Ordua
10:30 - 12:30
Hasiera
Urriak 16
Hizkuntza
Gaztelania
Antolatzailea
Emakumeen Etxea
Elkartea



Empalabramiento

Formatzailea: **Nerea del Campo**

Empalabramiento Nerea del Campo formatzaileak berak sortutako hezkuntza metodoa da. Metodo honen xedea da emakumeen ahalduntzea sustatzea gaztela bigarren hizkuntza bezala ikasiz (eta euskara pixka bat ere bai). Gaztelera hitz egiten ez den herrialdeetatik etorritako emakumeei zuzendutako tailerra da, euren eskubideak izendatzen ikasi dezaten, eskubide osoko hiritarrak izateko.

Eguna

Osteguna

Ordua

10:00 - 12:00

Hasiera

Urriak 4

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzaileak

Berdintasun eta

Kulturantzatasun Sailak

Ekintzailetzarako tailerra

Formatzailea: **María José Peral**

Tailer honetan negozio bat martxan jarri nahi dugunean, bultzatzen edo mugatzen gaituzten norbanako baloreak eta ideiak identifikatuko ditugu, baita bilatzen ditugun ikuspuntua, zeregina eta helburuak ere. Azkeneko helburua martxan jartzea izanda, gure autoestimua ere landuko ditugu.

Eguna

Asteazkena

Ordua

18:30 - 20:30

Hasiera

Urriak 10

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzailea

Emakumeen Etxea Elkarte

Zaharralduntze feminista

Formatzailea: **Bizitzen Fundazioa**

ADINKERIA gure gizarteko hiru diskriminazio nagusietako bat da, arrazakeriaren eta sexismoaren atzetik. Diskriminazioa emakumeek pairatzen dute batez ere, bizi itxaropen luzeagoa dutenez, matxismoaren efektuak indartu egiten direlako. Emakumeok zahartzarora iristen garenean, ez dakigu ezer pairatu behar dugun ikusezintasun eta bazterkeriaren inguruan, eta gizartearen adinkerari eta sexismoari lotutako estereotipoak barneratu ditugu. Adinkeriak emakume guztiak desahalduntzen ditu, edozein adinekoak direla ere.

Eguna

Asteazkena

Ordua

10:00 - 12:00

Hasiera

Urriak 10

Hizkuntza

Gaztelania

Antolatzailea

Berdintasun saila

*Ikastaroa ezagutzera emateko hitzaldia: urriak 3, 18:00

JAKITUN ikastaroak

Oinarrizko prestakuntza ibilbide bat da, eta Gipuzkoako berdintasunerako prestakuntza eskaintza egituratu eta hobetu nahi ditu. Emakumeentzakoa da, eta banako zein taldeko ahalduntzea lortzen laguntzea du helburutzat.

Berdintasunari buruzko oinarrizko prestakuntzaz gain, hausnartzeko eta elkartzeko gune bat ere eman nahi die ibilbideak emakumeei.

Antolatzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia (Berdintasun Zuzendaritza Nagusia) eta Emakumeen Etxea Elkartea

Zertan datza berdintasunaren eta feminismoaren kontu hori?

Formatzailea: **Arantza Campos**
Hizkuntza: **Elebiduna**
Data: **Urriak 2, 9, 18**
Ordua: **19:00 - 21:00**

Laneko, familiako eta norberaren bizitza bateratzeko eta erantzukidetasunerako giltzak

Formatzailea: **Susana Hernandez**
Hizkuntza: **Elebiduna**
Data: **Urriak 23, 30**
Ordua: **19:00 - 21:00**

Generoa desmuntatzen: indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea

Formatzailea: **Juana Aranguren**
Hizkuntza: **Gaztelania**
Data: **Azaroak 6, 15**
Ordua: **19:00 - 21:00**

Autodefentsa feminista digitala

Formatzaileak: **Arantxa Olañeta, Iratxe Ugalde, Ana Maiz, Elsa Scola**
Hizkuntza: **Elebiduna**
Data: **Azaroak 22**
Ordua: **17:00 - 20:00**

Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 – 21:00
Hitzordurik gabe

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak... inguruko aholkularitza.

Egilea:
Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehena
16:30 - 18:30
Hitzorduarekin

Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerritartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alarguntasuna...
Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Asociación Arrats

Asteazkena
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Elkartu

Ostirala
10:00 - 12:00
Hitzorduarekin

ZERBITZUAK



Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea,
lanerako zuzenbidea,
atzerritartasuna,
genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen
Elkartea

Asteazkena
19:00 - 21:00
Hitzorduarekin

Norbanakoaren Jabekuntzarako Gunea

Aholkularitza,
prebentzioa eta
ahalduntzea helburutzat
izanik eta metodologia
elkarreragileaz baliatuz,
norberaren indarretan
oinarritutako baliabideak
lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

Asteazkena
10:00 - 15:00
Hitzorduarekin

Aholkularitza, Laguntza Taldea

Errotutako jarrerak
eta erruduntasun
sentimenduak landu
nahiz aldatzeko.
Indarkeriari aurre
egin eta autonomia
areagotzeko.

Egilea:
Aizan

Asteartea,
hamabostero
14:30 - 16:00
Hitzorduarekin



Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
Lahia Nahia
Sexologia Elkarteak

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduarekin

“Iguálate” Ikasketak Homologatzeko Kanpainak.

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeke aholkularitza.

Egilea:
Bidez Bidez

Osteguna
10:00 - 12:00
Hitzorduarekin

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Astean Zehar. Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

Helbidea:
Okendo 9, 20004 Donostia

Telefonoa:
943 48 34 70

E-mail:
info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:
donostiakoemakumeenetxea.com
